


Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Enpleguaren hazkundera eten da

**Kontratazioa prekariora eta
diskriminatzailea da**

**Langabezia eta biztanleria aktiboa
gutxitzen doaz**

Emakumeekiko diskriminazioak darrai

Europako egoera latzenetakoa dugu


**Ekonomia hazten doa baina
prestazioek behea jo dute**

**Azpienplegua, gora doan beste
prekarietate mota bat**

Egoeraren Azterketa

HEHko egoera ez da ona, baina Europarekin alderatuta are okerragoa da!

Eta hori estatistikak erregistroak baino hobekiak izanik!




Gizartearen zati oso handi bat baztertua, txirotua eta kanporatua izaten ari da



Gainera, sortzen den enplegua ezin prekarioagoa da



Ekonomia urtero %3 hazten ari den bitartean



Langabeen bi herenek ez dute inolako prestaziorik jasotzen
 Prestazioen kopuruak gero eta murriztagoak dira
 Gero eta prestazio gehiago sorospen motakoak direlarik



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Enpleguaren hazkundera eten da..... 4
2. Zerbitzuetan hazi da enplegua, beste sektoreetan gutxitu..... 4
3. Kontratazioak prekaritatea eta diskriminazioa hedatzen ditu.... 5
4. Langabezia murrizten doa..... 6
5. Biztanleria aktiboa behera..... 6
6. Genero diskriminazioak bere horretan darrai..... 6
7. Europako goera latzenetakoa gaude..... 7
8. Prestazioek behea jo dute..... 9
9. BPGak hazkunde garrantzitsuan segitzen du..... 10

HILAREN PUNTAKO GAIA:

Azpienplegua, gora doan beste prekaritate mota bat

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
BPG	Barne Produktu Gordina
BAI/EPA	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
EIN/INE	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Ekonomiaren balioa, ez egoera, inoiz baino hobea den une honetan biztanleriaren zati handi bat baztertua izaten ari da eta beste zati handi bat egoera oso latza jasaten dabil. Besteak beste, oso prekarioa den enplegua are okerragoa bilakatzen dabil, enpleguaren sorrera eten egin da, langabeziaren gutxitzea motelduz doa, prestazioek behea jo dute, pobrezia maila jasangaitzean kokatu da, emakumeekiko diskriminazioak bere horretan darrai... Honen aurrean ezinbestekoa da analisi sakon eta kritikoa burutzea, aldaketarako neurri zorrotzak plazaratzeaz gain.

** Txosten hau 2017ko ekainak 10 eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.eus
Twitter: @mrafundazioa


Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

1. Enpleguaren hazkundera eten da

2017ko lehen hiruhilekoan 1.170.400 pertsonak enplegua izan dute Hego Euskal Herrian INEK egindako inkestaren arabera. Gizarte Asegurantzak argitaratutako datua, ordea, 1.157.636 afiliaturikoa da epealdi horretarako.

Aurreko urtearekin alderatuta, estimaturiko enplegua 10.800 lagunetan hazi da, afiliazioa 25.039tan murriztu delarik. Lehen hiruhileko enpleguaren joera ikuskatuz, hurrengo grafikoan adierazita dagoenez, 2014ko minimotik hazi egin da. 2009tik ordura arte gutxitu egin zelarik urterik urte.

Lehen hiruhileko enpleguaren bilakaera



Iturria: INE, Gizarte Asegurantza

2017an enplegua izan dutenen artean, 276.000 Nafarroakoak dira eta 894.400 EAEkoak. Lehen erkidegoan gora egin du biztanleria okupatuak 13.200ean eta bigarreanean 2.400ean behera. Sexuka, 542.200 emakumeak dira eta 628.300 gizonak.

Gazteen artean (16 eta 24 urte artean dituztenak), enplegua 44.100ekoa izan da: aurreko urtean baino 1.900 gehiago. Horietatik, 11.700 Nafarroan eta 32.400 EAEn; 22.900 gizonak eta 21.300 emakumeak. Gazteen enplegua ere hazten dabil 2014az geroztik, orduan 32.500ek baitzuten enplegua; baina, oraindik ere, 2009ko mailatik urruti segitzen du, 74.900 baitzeuden.

Biztanleria okupatuaren %18,2 jardunaldi murriztarekin ibili da lanean 2017ko lehen hiru

hilabeteetan; aurreko urtean baino 1,1 ehuneko puntu gutxiago baina 2009an baino 4,1 gehiago. Nabarmena da oso gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna atal honetan: gizonak %7,9ko partzialitatea pairatzen dute, emakumeena %30,2koa den bitartean.

2. Zerbitzuetan hazi da enplegua, beste sektoreetan gutxitu

Sektoreei erreparatuz, lehenengoan biztanleria okupatuaren %2,3 aritu da 2017ko lehen hiruhilekoan (26.600 pertsona), eraikuntzan %5,2 (60.700 lagun), industrian %23,6 (276.300) eta zerbitzuetan %68,9 (806.800). Azken urteetako bilakaerak argi erakusten du zerbitzuen gorakada eta eraikuntzaren gutxitzea: lehena da langile kopuruan gora egin duen bakarra (duela zortzi urte baino 4.400 gehiago daude), bigarreanean ia erdira murriztu delarik.

Zerbitzuetan izan ezik, beste hiru sektoreetan gizonak gehiago dira: nekazaritzan %79,3, eraikuntzan %90,6 eta industrian %80,1. Zerbitzuetan, ordea, emakumeak langileen %59 dira. Gazteen artean ezberdintasun horiek ematen dira ere, gizonak gehiengoaren diren sektoreetan nabariagoak izanik: nekazari gazte guztiak gizonak dira, eraikuntzako %70 eta industrian dabilzatenen %83,2. Zerbitzuetan %59,5 emakumeak dira.

Enplegua dutenen artean, 999.200 soldatapeko langileak dira, aurreko urtean baino 29.400 gehiago. Azken bederatzita urteetako datu baxuen eta altuenarekin alderatzean, 2014an baino 75.900 soldatapeko gehiago baina 2011an baino 47.200 gutxiago dago HEHn. Soldatapekoetatik, 232.100

Enplegua sektoreka HEHn

	2017ko 1hh		2013ko 1hh		2009 1hh	
	Pertsona	%	Pertsona	%	Pertsona	%
Nekazaritza	26.600	2,3	29.500	2,6	28.500	2,3
Eraikuntza	60.700	5,2	70.700	6,2	113.000	9,1
Industria	276.300	23,6	247.100	21,7	303.000	24,3
Zerbitzuak	806.800	68,9	790.000	69,5	802.400	64,3
Guztira	1.170.400	100	1.137.400	100	1.247.000	100

Iturria: INE



Nafarrak eta 767.100 EAEkoak dira, antzeko bilakaera eman delarik bi lurraldeotan.

Gazteen artean, 42.600 soldatapeko langile daude, aurreko urtean baino 6.100 gehiago. Datu baxu eta altuenak, kasu honetan, 2009 eta 2014an eman ziren, hurrenez hurren. Horrela, 2009ko lehen hiruhilekoan baino 28.900 soldatapeko gazte gutxiago egon da 2017koan baina 2014koan baino 13.600 gehiago.

Biztanleria okupatuaren %85,4 soldatapekoa langileria da (gizonen %81,2 eta emakumeen %90,1). Gazteen artean, enpleguen %96,6 soldatapekoa da (gizonen %94,8 eta emakumeen %97,6).

Kontratu motaren arabera, soldatapekoen %23,5 aldi-baterako kontratu batekin aritu da lanean 2017ko lehen hiruhilekoan: guztira 234.800 pertsona. Aurreko urtean %24,6 izan zen, 2009tik eman den maila gorena; maila baxuena 2013ko lehen hiruhilekoan eman zen, soldatapekoen %19 egon baitzen aldi-baterako kontratu batekin lanean.

Alor honetan ere, emakumeek gizonek baino prekaritate maila larriagoa pairatzen dute: 2017ko lehen laurdenean Hego Euskal Herriko emakumeen %27 aldi-baterako kontratu batekin aritu da, gizonen %20,1 era berean aritu delarik. Nafarroan aldi-baterakotasuna EAEn baino ehuneko puntu bat baxuagoa bada ere, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak oso parekoak dira bi erkidegoetan.

3. Kontratazioak prekarietatea eta diskriminazioa hedatzen ditu

Kontratazioak ezberdintasunak sortzen segitzen du gizon eta emakumeen artean. Horrela, 2017ko lehen hiru hilabeteetan HEHn egin diren 300.000 kontratu ingurutik 109.000 lanaldi partzialekoak izan dira (%36,4) eta 276.000 aldi-baterakoak (%91,9); gogora dezagun kontratu partzialak aldi-baterakoak direla hein handian.

Baina kontratazioan ematen den aldi-baterakotasuna oso parekoa bada ere gizon eta emakumeen artean (0,9 ehuneko punturen ezberdintasuna dago emakumeen kontra),

partzialitatea bikoitza da emakumeengan: gizonen egiten zaizkien kontratuen %23,6 dira partzialak, emakumeen egiten zaizkien %49,1 horrelakoak direlarik.

Kontratazioa HEHn 2017ko lehen hiruhilekoan

	Kontratuak	Aldibaterakoak (%)	Partzialak (%)
Guztira	300.186	91,9	36,4
Gizonezkoak	149.206	91,4	23,6
Emakumezkoak	150.926	92,3	49,1

Iturria: SEPE

Erkidegoka ikuskatzean, EAEn partzialitate askoz ere altuagoa ematen da (%40, Nafarroan %27) baina tenporalitate maila baxuagoa (%91,3 eta Nafarroan %93,4). Are gehiago, mugetara joz: EAEko emakumeen kasuan partzialitatea %54koa da kontratazioan, Nafarroako gizonena %17,6 den bitartean.

Horrez gain, kontratuen iraupena aztertzean luzaera motzekoak direla agerian geratzen da. Informazioa bat ere zehatza ez bada ere, HEHn 2017ko lehen hiru hilabeteetan egindako 300.000 kontratu ingurutik, gutxienez %11,8 astebete baino gutxiagorako izan dira eta %45,7 hilabete baino gutxiagorako. Datu hauek egiazaturiko minimoak dira, kontratu askok (%31,7ak) ez baitute zehazten iraupena eta beste asko aurrikusitakoa baino lehenago amaitzen baitira.

HEHn 2017ko lehen hiruhilekoan egindako kontratuen gehienezko iraupena ehunekotan

Egunak	%
7	11,8
15	1,2
30	32,7
90	6,5
180	5,4
Zehaztu gabeak	31,7
180 baino gehiago	2,6
Mugagabeak	8,1

Iturria: SEPE

4. Langabezia murrizten doa


Langabeziari dagokionez, 2017ko lehen hiruhilekoan 151.900 lagun egoera horretan ibili direla estimatzen du INEK, aurreko urteko epealdi berean baino 23.400 gutxiago izanik azken bederatzi urteotako bigarren datu baxuena da. 2013ko datuarekin alderatzean, azken urteotako maila altuena eman zen lehen hiruhilekoarekin hain zuzen, 89.500 langabe gutxiago daude orain. Erkidegoka, 31.500 lagun egon dira langabezian Nafarroan eta 120.400 EAEn.

Langabezian izen-emanda, ordea, 179.591 pertsona egon dira batezbestean 2017ko lehen hiru hilabeteetan. Beraz, aurreko urtearekin alderatuz 19.613 langabe gutxiago daude eta 2009ko datuaren ostean eman den langabezia maila baxuena da. Maila altuenarekin alderatzean, hots 2013koarekin, langabezian izen emandako kopuruak 54.154 pertsonatan egin du behera.

Enplegua duten gehienak gizonak badira ere, langabezian daudenen gehienak emakumeak dira: 80.300 emakume daude langabezian eta 71.600 gizon. 2009az geroztik lehen aldiz jazo da hau 2017ko lehen hiruhilabeteetan.

Gazteen artean, 19.400 langabe egon dira aurten: aurreko urtean baino 300 gutxiago eta 2013an baino 14.800 gutxiago. Gainera, azken bederatzi urteotako gazte langa kopuru murriztena eman da 2017ko lehen hiruhilekoan.

Lehen hiruhileko langabeziaren bilakaera



Iturria: INE, SEPE

Langabezian egon direnen %57,8ak urtebete baino gehiago eman du egoera latz horretan, aurreko urteko lehen hiruhilekoan baino 3,4 ehuneko puntu gutxiago. 2009an, aldiz, epe

luzeko langabezia soil-soilik %19,2koa zen eta haziz joan zen 2014an %61,9ra iritsi arte. Lurraldeka, Nafarroan epe luzeko langabezia %45,4koa da eta EAEn %61ekoa.

Beste era batera esanda, 87.800 pertsonak urtebete baino gehiago daramate langabezian lana bilatzen eta ezin lortu, 2016an baino 19.400 gutxiago eta 2014an baino 56.200 gutxiago. Aitzitik, 2009an baino 59.400 lagun gehiago daude epe luzeko langabezian.

5. Biztanleria aktiboa behera

Langabezian dagoen biztanleria eta okupaturik dagoena kontuan hartzen dituen biztanleria aktiboa, beraz, 1.322.400 pertsonatakoa da Hego Euskal Herrian. Azken bederatzi urteotako kopuru txikiena da eta aurreko urtean baino 12.500 murriztagoa eta 2011an baino 89.300 txikiagoa.

Gazteen artean, biztanleria aktiboa 63.600 pertsonak osotzen dute. Kopurua aurreko urtekoa baino 1.800 handiagoa da, orduan izan baitzen azken bederatzi urteotako minimoa; ordea, 2009koa (maximoa) baino 42.300 pertsona murriztagoa da.

Hortaz, langabe kopurua biztanleria aktiboarekin alderatzean langabezia maila %11,5ean kokatu da 2017ko lehen hiru hilabeteetan (%10,2 Nafarroan eta %11,9 EAEn). Langabezia tasak behera egin du aurreko urtearekiko 1,6 ehuneko puntutan, 2013ko marka gorenetik aldentzen segituz (orduan %17,5 izan baitzen) eta 2009kora hurbilduz (%10,6).

Bestalde, gazteen langabezia tasa %30,5ekoa izan da aurten, aurreko urtekoa baino 1,4 ehuneko puntu txikiagoa eta 2014ko maximotik (%50,2 izan zen) urruntzen doa 2009ko minimora (%29,4) hurbilduz. Erkidegoka, askoz ere altuagoa da gazte langabezia tasa Nafarroan (%37,1) EAerekin (%27,8) konparatuz.

6. Genero diskriminazioak bere horretan darrai

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ematen dira ere langabezia tasari dagokionez: gizonena %10,2 da eta emakumeen %12,9; gazteen artean, gizonena %35,5 da eta emakumeena %24,9.




Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak 2017ko 1.hh

	Langabezia	Gazte langabezia	Tenporalitatea	Partzialitatea
Orokorra	11,5	30,5	23,5	18,2
Gizonak	10,2	35,5	20,1	7,9
Emakumeak	12,9	24,9	27,0	30,2

Iturria: INE

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak Hego Euskal Herriaz beste ere ematen dira; besteak beste, 28 estatuen Europar Batasuneko batezbestekoa aztertzean ematen dira. Ondorengo grafikoak islatzen du HEH eta EB-28n gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna aldi-baterakotasun, partzialitate, langabezia, gazte langabezia eta epe luzeko langabezia tasei dagokienez bi lurralde eremuetarako dagoen azken argitalpenaren arabera.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak HEH eta EB-28n, 2016ko 4.hh



Iturria: INE


Eurostat Grafikoan ageri denez, 2016ko azken hiruhilekoan Hego Euskal Herriko egoera okerragoa zen EB-28ko batezbestekoarekiko alor guztietan partzialitate mailan izan ezik. Horrez gain, emakumeen egoera gizonena baino

txarragoa zen bi lurralde eremuetan tenporalitate, partzialitate eta langabezia tasei zegokienez, oso antzekoa izanik gazte langabezia eta epe luzeko langabezia tasak.

7. Europako goera latzenetakoan gaude

Era berean, Europako estatuen klasifikazioa eginik Hego Euskal Herriko egoera azaleratzen da. Horrela, tenporalitateari dagokionez Europako hirugarren maila altuena dugu (%23,8) Poloniaren (%26,7) eta Estatu espainiarraren (%26,5) atzetik. Kontrako aldean, tenporalitate baxuena duten lurraldeak Errumania (%1,3) eta Baltikoko estatuak dira (Lituania buru, %1,4arekin). Europar Batasuneko batezbestekoa %14,2 da, Hego Euskal Herrikoa baino 9,6 ehuneko puntu txikiagoa.

EB-28ko tenporalitate tasa, 2016ko 4.hh




Iturria: Eurostat, INE

Aipatu beharra dago, emakumeen tenporalitate maila gizonena baino altuagoa izanik bai HEHn eta baita EB-28n ere, Nafarroako emakumeek jasaten duten aldi-baterako tasa kontinenteko altuena dela: 2016ko azken hiruhilekoan erki-degoan %28,5ean kokatu zen, Europako batezbestekoa %14,7 zen bitartean (ia bikoitza, beraz).

Antzera gertatzen da langabeziari dagokionez: Hego Euskal Herriko langabezia maila (%11,7) kontinenteko seigarren okerreña da. Egoera latzagoa Greziak (%23,7), Estatu espainiarrak (%18,7), Kroaziak (%13,5), Txiprek (%13,2) eta Italiak (%12,4) dute. Batasuneko batezbestekoa %8,4 da eta langabezia maila baxuenak dituzten estatuak Islandia (%2,7), Txekia (%3,6) eta Alemania (%3,8) dira, hirurek izanik %4 baino txikiagoa den langabezia tasa.


EB-28ko langabezia maila, 2016ko 4.hh



Iturria: Eurostat, INE

Gazte langabezia mailan ere seigarren postu okerrenean kokatzen da HEH (%29,4), Europako batezbestekotik (%18,1) urrun. Egoera latzena Greziak (%45,2), Estatu espainiarrak (%42,9) eta Italiak (%40,7) dute, hirurak %40tik gorako gazte langabezia tasarekin. Maila txikiak Islandiak (%5,7), Alemaniak (%6), Austriak eta Herbehereak (azken biek %10,1) dute.

EB-28ko gazte langabezia tasa, 2016ko 4.hh




Iturria: Eurostat, INE

Epe-luzeko langabezia ikuskatuz, Hego Euskal Herrikoa EB-28ko hirugarren altuena dela agerian geratzen da. 2016ko azken hiruhilekoan %57,8koa izan zen gurean, Grezia (%71,6) eta Eslovakiaren (%59,3) ostean; EAEkoa (%60,2) bigarren altuena izan zen. EB-28ko batezbesteko maila %46,6koa izan zen, egoera hoberena estatu



nordikoetan (Islandiako %16,3 eta Finlandiako %28,3 artean) eta Erresuma Batuan (%26,1) zegoelarik.

EB-28ko epe-luzeko langabezia tasa, 2016ko 4.hh



Iturria: Eurostat, INE

8. Prestazioek behea jo dute


2017ko martxoan HEHn langabezia egoeran egon ziren 178.510 pertsonetatik %61,3ak ez zuen inolako prestaziorik jaso, 38.685ek kontribuzio-mailako prestazioak jaso zituzten eta 26.042k sorospenekoak. Gainera, prestazioen hartzaile bakoitzeko batezbesteko gastua 1.046,3 euro-takoa izan zen, azken urteetako datu txikienetakoa.

Ondorengo grafikoak egoera hori eta azken urteetan izan duen bilakaera erakusten du. Bertan ikusten da 2017ko martxoan 109.394 langabe inolako prestaziorik gabe geratu zirela; alderaketa gisa, 2013ko martxoan 109.900 langabe egon ziren prestaziorik jaso gabe, baina urte hartan kontribuzio mailako prestazioak jaso zituztenen kopurua (77.632) 2017koaren bikoitza da. Era berean, 2017ko martxoan sorospen prestazioak jaso dituztenen kopurua 26.042ko izan da, kopuru hurbilena 2009koa delarik (25.644); ordea, 2009ko martxoan prestaziorik jaso ez zuten langabeen kopurua (56.574) 2017koaren erdia besterik ez da.

Prestazioen hartzaileko batezbesteko gastuaren bilakaera beherakoa da 2009az geroztik, orduan 1.289,13 eurotakoa izan baitzen. Era berean, prestazioen estaldura murrizten ari da: 2010eko martxoan langabeen %32,5 zegoen prestaziorik jaso gabe, 2011an %43 eta 2014an %51,3. Jada, lehen esan bezala, %61,3ra handitu delarik.

Orotara bideratu den gastua prestazio mota hauetan 72,3 milioi eurotakoa izan da aurtengo martxoan, langabe bakoitzeko 405,11 euro. 2010eko hilabete berean bikoitza (146,3 milioi euro) bideratu zen antzeko langabe kopurua zegoelarik; hortaz, 2010eko martxoan langabeko gastua 831,59 eurokoa izan zen, 2017koaren bikoitza baino gehiago.

Hartzaileko eta langabeako prestazioen batezbesteko gastua eta langabeak estaldura motaren arabera HEHn martxoan



Iturria: SEPE

9. BPGak hazkunde garrantzitsuan segitzen du

Ekonomiaren bilakaera oso ona izaten ari da Hego Euskal Herrian. Zehazki, 2017ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berean baino %2,9 inguru handiagoa da: %2,8 hazi baita EAEn eta %3,1 Nafarroan. Ez hori bakarrik, aurreko hiruhilekoetan ere hazkunde garrantzitsuak eman dira ekonomiaren moneta balio ofizialean: 2016az geroztik %3aren baitan kokatu dira bi erkidegoetako BPGaren hazkundeak.

BPGaren urtearteko hazkundea

	2016				2017
	I	II	III	IV	I
EAE	3,3	3,2	3,0	2,9	2,8
Nafarroa	3,1	3	2,9	2,7	3,1

Iturria: Eustat, IEN

Atzera begiratuz, BPGaren urteko hazkundea 2014an hasi zen, 2013ra arte kota negatiboetan egon baitzen. Orduz geroztik, ekonomiaren bilakaera positiboa da eta %3 inguruan egonkortu da 2015etik aurrera. Ez hori bakarrik, aurtengo hazkundearen aurrikuspen ofiziala ehuneko horren baitan zehaztu dute.



Azpienplegua, gora doan beste prekariedade mota bat


Jardunaldi murritzean lan egiten dutenen artean (gogora dezagun enplegua dutenen %18,2 mota honetan ari direla), pertsona askok beste aukerarik ez dutelako onartzen dute honelako enplegu bat. Egoera honi, borondatez kontrako enplegu partziala edo azpienplegua deitzen zaio; beste era batera esanda: ordu gehiago lan egin eta ezin duten pertsonen enplegua da.

Eta nabarmenagoa da emakumeen artean, batez ere etxeko eta zaintza lanen gehiengoa egin behar izaten dutelako, baina baita enplegu prekarioenak emakumeei eskeintzen zaizkielako ere. Horiek dira, besteak beste, enplegua duten emakumeen %30,2ak jardunaldi murritzean lan egitearen arrazoietakoak; gizonen artean enplegua dutenen %7,9 dabilelarik enplegu partzial batean.

Datuak urriak badira ere eta Hego Euskal Herrirako argitaratzen ez direlarik, Europar Batasunean aztertzen da enplegu mota hau. Eta emaitzak kezkatzeko moduak dira: EB-28ko batezbestean, lan partzialean dabiltzanen %20,9ak lanordu gehiago egin nahi ditu. Eta estatuz estatu ikuskatzean, Grezian lan partziala dutenen %74,1 azpienplegatua dago, %63,7 Txipren eta %50,7 Estatu espainiarrean.

Hortaz, Estatu espainiarrean lanaldi murritzean dagoen biztanleriaren erdia bere borondatearen kontra dago horrelako enplegu partzial batean; bere esku balego, ordu gehiago egingo lituzkeelarik. Egoera hori antzeko eran eman daiteke Hego Euskal Herrian, hemengo lan araudia Estatu espainiarrak ezarritakoa baita; gainera, Estatu espainiarreko partzialitate maila (%15,2 2016ko azken hiruhilekoan) HEHkoaren oso antzekoa da (%17,3 epe berean).

Enplegu partziala duten pertsonen azpienplegu maila EB-28n 2016an



Iturria: Eurostat

Prekariedade mota hau, are gehiago, hazten ari da azken urteotan. Europako estatistika bulegoak aztertu duenez, 2008 urtean 7,7 milioi pertsona inguru zeuden azpienplegatutik Batasunean; kopurua hazten joan da eta 2016an 9,5 milioi pertsonak jasan dute azpienplegua.

Ez hori bakarrik, azpienpleguak esan nahi du era horretan lanean dabiltzanek ez dutela behar edota nahi beste diru-sarrerarik lortzen, langileen pobrezia hazkundera eragin zuzena izan duen faktore bat delarik, beraz.

